

# ELKARSORKUNTZA EGONALDIAK

## WIKITOKI 2016

WikiToki Elkarsorkuntza Laborategia da, eta kultur ekimen, gizarte berrikuntza, garapen komunitario eta ekonomia banatuan jarduten du. Esparru ireki, fisiko eta digitalean jarduten dugun komunitatea gara, non harreman, antolaketa, ikerketa, sorkuntza, ekoizpen eta kontsumo eredu berrien gainean esperimentatzen dugun.

WikiToki erabilera anitzeko espazio autogestionatua da, 370 m<sup>2</sup>-koa, Bilboko San Frantzisko auzoan. 2013tik, 25 lagun biltzen ditu, aldi berean bere proiektu propioak eta WikiTokiren esparruan sortzen diren proiektuak garatzen dituztenak.


WikiToki berez, esperimentazio prozesu bat da, I+G sozial / kultural / ekonomiko / politikoko laborategia, eta lotzen dituen ezaugarri komuna "ko-a" da. Arlo hauetan jarduten duen komunitatea da: praktika, hausnarketa eta ekintza, prestakuntza jarraitua, ikerketa, ideien eta prototipoen garapena, kosorkuntza eta elkarlaneko praktikak. Gune bat, EKOIZPENERAKO (sortu, lan egin, ekin eta ikertu), ERREPRODUKZIORAKO (soziala, harremanetarako) eta DIBULGAZIORAKO (prestakuntza, erakusketa). Topagune bat, non dimentsio fisiko eta digitala loturik dauden beste espazio, ekimen eta egitarau biltzen dituen sare baten barruan.

**Wiki** iturburu irekiak (kode partekatuak, azpiegiturarako sarbidea, etabar.) / sare parte-hartzaile eta banatuaren gestioa / etika feminista / ezagutza librearen eta ondasun komunen ekoizpena / metatze garapena / erreprodukziogarritasuna.

+

**Toki** garapen komunitarioa / ekintza kokatua-testuinguruan kokatua / globalki lotutako ekoizpen lokalizatua / cowork + colife.

Ikusi [bideoa](#), nabigatu [webgunean](#), jarrai gaitzazu Twitter bidez [@wiki\\_toki](#) edo hurbil zaitez Harrobia Plazara, 5, 2. - 48003 Bilbo.



# ELKARSORKUNTZA EGONALDIETARAKO MOTIBAZIOAK 2016

**Honen bidez, Elkarsorkuntzarako 3 egonaldi iragartzen dira WikiTokik inportantetzat jotzen dituen hiru alderdi jorrazeko 2016an zehar: bere espazioa, euskara eta antolaketa-kodea zabaltzea.**

*Ikusi bakoitzaren ezaugarriak beheago.*

## **WIKITOKI eta bere ESPAZIOA**

WikiToki Bilboko San Frantzisko auzoan (Goiko Auzoen barruan, eta Bilbo Zaharra eta Zabala hartzen ditu barnean) jaiotako eta bertan kokatutako ekimena da. WikiTokiren agente sustatzaile gehienak auzoan kokatuak ginen aurretik edota auzoko zenbait hiri-dinamiketan parte hartutakoak ginen, eta orain, bide horretan jauzi kualitatibo bat emateko aukera dugu. Horregatik, gure helburuetako bat interakzioa garatzea da, eta baita harremanak sortzea ere WikiTokiren, agenteen eta auzoko bizitza sozial, ekonomiko eta kulturalaren artean, bata bestea osatzeko eta bata besteari on egiteko.

Gure lana lau lerro osagarri hauetan oinarritzen da:

- Auzoko bizitzan teilakatzea; auzoko elkarte-bizitzan alderdi aktiboa izan.
- Auzoko espazio eta baliabideen zerrenda eta beraien arteko lotura egitea.
- Harrobi Plaza antolatzen laguntzea.
- Auzora erakartzea auzoarekin lotura berezirik ez zuten bestelako agenteak, WikiTokiren eta bere jardueren bitartez, askotariko agente eta harremanak lortzeko asmoz.

## **WIKITOKI eta EUSKARA**

Euskara era naturalean presente dago WikiTokiren eguneroko bizitzan. Hala ere, bazkide ugari euskaraz ez dakitenez, dinamika gehienak (lantaldeak, aktak...) gaztelaniaz egiten dira.

2015ean arazo horri zuzenean heldu genion, gure barne-dinamiketan eta kanpo- komunikazioan euskarak duen presentzia eta euskararen erabilerearen normalizazioa jorrazeko. Horretarako, lantalde zehatza sortu genuen eta tailer-azulana bat garatu genuen Elhuyar Aholkularitzarekin. Horri esker, arazoa zehatz-mehatz aztertu eta zenbait lan-lerro posible zehazteko aukera izan genuen, besteak beste: terminologia zehatza eta Wikitokiren paisaia linguistikoa; euskararen mapa Wikitokin; euskararen gutxieneko erabilera bermatzea e-posta mezuetan, sare sozial, *meme* eta harreman moduetan; euskarak webgunean duen presentzia handitzea; edo batzarrak euskaraz egitearen aldeko ahalegina.

## **WIKITOKI eta ANTOLAKETA-KODEA ZABALTZEA**

WikiTokik esperientzia maila altua (mikro eskalan) eskatzen du gestio eta ekoizpen sozialean, kulturean, teknologikoan eta espazialean; eta horrek antolaketa- eta ekoizpen-kode tradizionalak berritzera behartzen gaitu. Antolaketa-kodetzat hauek hartzen ditugu: formatu juridikoak (elkartea, kooperatiba, autonomoak), autogestio sistemak (protokoloak, asanbladak), elkarlan ereduak (denbora bankua, lantaldeak). Eta ekoizpen-kodetzat, hauek: sormen-, lan-eta komunikazio-ereduak, eta baita loturiko balio eta errentaren banaketa moduak ere.

Gure kudeaketa ereduak horizontaltasuna, gardentasuna, banatzea eta erantzunkidetasuna bilatzen ditu (modu kritikoan, gatazkei aurre eginez eta errutinak eta ohiturak gaindituz). Lan kolektiboekin eta lotura dugun antzeko ekimenekin izandakoesperientzien uzta da.

Eredu honek hauen bitartez jarduten du:

- Hileroko asanblada; elkarrizketarako eta erabakiak hartzeko zilegitasuna duen organoa.
- Lantalde egonkorak, ohiko gestiorako.
- Izaera efimeroko talde fantasmak, gai zehatzak jorrazeko.
- Hileroko auzolanak, hausnarketa kolektiboa eskatzen duten prozesuetarako, zeregin zehatzak betetzeko eta baliabide komunak onerara erabiltzeko.

-Denbora bankua, agenteen eta ekoizpen-eta erreprodukzio-zereginen artean denbora eta ardurak modu orekatuan kudeatu eta erabiltzeko tresna.

## EZAUGARRIAK

- Iraupena.** 3 hilabete.
- Datak:** 2016ko abendua – 2017ko otsaila.
- Aurrekontua.** 2.000€-ko ordainsaria + 500€ materialetan (zergak barne).
- Ate irekiak.** Elkarlan egonaldiak dirauen bitartean, publikoarentzat irekiko da, behin gutxienez, egonaldian zehar egindako lana erakusteko. Une ireki horrek edozein formatu izan dezake.
- Komunikazioa.** Erresidentziako partaideekin alde aurretik adostuta, prozesua WikiTokiren kanaletan erakutsiko da: sare sozialetan, webgunean.
- Sarea.** Hurbileko testuinguruko beste agente sozial, kultural edo artistikoekin harremana.
- Baliabideak.** WikiToki lantaldea, prozesua babestu eta elikatuko duena, eta lan-espazio bat Wikitokin.
- Egiletza.** WikiTokiko egonalditik sortuko den lana Creative Commons lizentziarekin kaleratuko da.
- Edozein egoeratan dauden **Proiektu** proposamenak aurkez daitezke.

## NORENTZAT

Deialdi hau honako arloetan jarduten duten guztiei zuzenduta dago: arte-sorkuntza, ikerketa, komisariotza, programazioa, publizitatea, arkitektura, hirigintza, diseinua, ilustrazioa, gizarte zientziak, dantza edota egonaldiaren garapenarekin zer ikusia duen beste edozein arlo. Inportanteena eskatzaileek beren interesa azaltzea da, eta hiru erresidentzia horien gaiarekin loturiko proposamena aurkeztea.

## PROPOSAMENEN AURKEZPENA

- Proiektu/ideiaren azalpena (300 hitz gehienez)
- Dosier deskriptiboa, ideia/proiektua azalduz. Helburuak, behar teknikoak, lan egutegia. Gehienez bi orrialde.
- CV / Ibilbidea / Portafolioa.
- Norberaren datuak (izen-abizenak, helbidea, telefono zkoa., e-posta helbidea, webgune eta sare sozialen lotura).
- Dosierraren hizkuntza: euskara, gaztelania edo ingelesa.
- Proposamenak bidaltzeko azken eguna: **2016ko azaroaren 11.**
- Proposamenak [info@wikitoki.org](mailto:info@wikitoki.org) helbidera bidaliko dira, eta mezuaren gain "Residencias" jarriko da.
- Fitxategiaren formatua: memoriaren eduki guztiak PDF bakar batean bidaliko dira. Bideoak eta bestelako materialak testu dokumentuan jaso behar dira "link" moduan.

## BALORAZIO BATZORDEA

Proposamenen hautaketa WikiTokiko bazkideek egingo dute. Egoiliarren azken zerrenda Wikitokiren webgunean kaleratuko da **2016ko abenduaren 18an.**

# ELKARSORKUNTZA EGONALDIAK: ANTOLAKETA-KODEA ZABALTZEN

## Motibazioak

WikiTokiren antolaketarako zenbait protokolo edo mekanismo prozesatzea, dinamikoagoak, didaktikoagoak eta praktikoagoak egiteko asmoz, eta modu irekian partekatu eta banatzeko garaian testuinguru desberdinetan erabiliak izan daitezten. Elkarlan egonaldi honetarako hautatu diren bi protokoloak hauek dira:


- Barne-araudia.
- Antolaketa eredia / WikiTokiren organigrama.

## Helburuak

- Honako ariketa egitea: sintesia > itzulpena > formateatzea (diseinua).
- WikiTokiren datu-dokumentuak 'garbitzea' (dokumentuak besteekin arazorik gabe partekatu ahal izateko).
- Dokumentuetatik kode garbi bat sortzea, edozein kolektiborentzat egokitzeko modukoa.
- 'How to'a itzultzea, erraz irakurtzeko moduko hizkera batera (gizakiontzat ulergarria).
- Formateatzea, eskuragarri bihurtzeko (formatua pentsatzea: .odt, wiki bat, html5-ean bistaratzea, gestio software bat edo ezagutzen ez dugun beste batzuk).
- Diseinua didaktikoa eta begietara erakargarria izatea.
- Autogestio eredu eta prozesuetan interesa duten pertsona eta kolektiboentzako materialak lortzea:
  - >Barne-araudia: dokumentu garbia eta formateatua.
  - >WikiTokiren antolaketa eredia: dokumentu garbia + bistaratze bat (formateatua).
  - >Fitxategi eta itzulera EDITAGARRIAK.

## Hautatzeko irizpideak

- Prozesu kolektiboen eta autogestioaren konplexutasuna ulertzen dituen pertsona bat bilatzen dugu.
- Pertsona horrek prozesu / kolektiboakbistaratzeko tresnak ezagutu eta menderatzeko gai izan behar du.
- Komunikazio sintetiko, eskuragarri eta Aefektiborako gaitasuna (gizakioi komunikatzeko) izan behar du.
- Irudi eta diseinuetara itzultzeko gaitasuna.
- Eskatzailearen ibilbidea eta Cva aintzat hartuko dugu.
- Baita ere proiektuaren egingarritasuna, aurrekontuari eta betetzeko epeei begira.



# ELKARSORKUNTZA EGONALDIA: ESPAZIO FISIKOA

## Motibazioak


Bitartekaritza lana egitea WikiTokiren inguru eta auzoan eragingo duen prozesu sortzaile batean, sinergiak sortuz eta erabilera publikoko espazioa tresna moduan erabiliz.

## Helburuak

- Kosorkuntza prozesuan laguntzea, WikiTokiko agenteekin eta WikiTokik espazioaren bitartez harremanak izan nahi dituen auzoko kanpo-agenteekin.
- Gure inguruan eragiteko asmoz, nola, norekin eta nondik ekingo den pentsatzea.
- Prototipo/azterketa bat egitea, espazio fisikoak harreman-egoera berriak —besteak beste, baliabideak edota ezagutza trukatzeko espazioak, batzartzeko espazioak, elkarlanerako espazioak...— sortzeko duen ahalmenez gogoeta egiteko.

## Hautatzeko irizpideak

- Pentsatu/ekiteko modu/bide berriak.
- WikiTokiren beharretara egokitzeko gaitasuna; WikiToki elkarsorkuntzarako laborategia dela kontuan hartu behar da.
- Eskatzailearen ibilbidea eta CVA.
- Aintzat hartuko da proiektuaren egingarritasuna, aurrekontua eta betetzeko epeei begira.



# ELKARSORKUNTZA EGONALDIA: EUSKARA

## Motibazioak

Euskara presente dago WikiTokiren eguneroko bizitzan eta baita bere kide batzuen jardura eta proiektuetan ere. Hala ere, elkartearen dinamika gehienak (lantaldeak, aktak...) gaztelaniaz garatzen dira. Euskaraz ez dakien kideen kopurua handia da, eta euskara ulertu arren, kostata hitz egiten duten kideak ere badaude.

Arazo hori zehazki lantzeko asmoz, lantalde bat sortu eta auzolan saioa garatu ziren, egoera aztertu eta lan-ildo posible batzuk definitzeko. Hauek dira lan-ildoetako batzuk:

- WikiTokiko euskararen mapa.

Elkarteko kideen euskara maila zehaztea, baita zein espazio eta momentutan hitz egiten den, eta erabil litekeen, ere.

- Elkartearen bilerak euskaraz egitea ahalbidetzea: euskara proto-protokoloa.

Hasiera eta bukaerako galdera-sorta bat egitea bilera mota ezberdinetarako. Esaterako: Bilera hau euskaraz egin al daiteke? Bileren datuak eta erantzunak jasotzea eta horiek aztertzea.

- WikiTokiren terminologia eta paisaia linguistikoa.

WikiTokiko espazioko seinaleak euskaraz bakarrik egotea, eta bestelako kartelen kasuan ere eginote daitekeen aztertzea. Euskaraz izendatzea WikiTokiko araudi eta funtzionamendurako talde edota kontzeptuak.

- Kanpo-komunikazioan euskaren presentzia handitzeko ekintzak.

EUSKARAZko elkarsorkuntza egonaldiaren deialdiaren bitartez, euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzea WikiTokin, aipatutako lan-ildoak garatuz edota ildo berrietatik abiatuz.

Elkarlan egonaldiaren filosofia hizkuntzen ekologian oinarritzen da, hizkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortu nahi duena. Ekologia linguistikoa ikuspegi ekosistemiko batetik lantzen ditu kontaktuan dauden hizkuntzen arteko harremanak, baita hizkuntz bakoitzak bere inguruarekin duen harremana ere. [Informazio gehiago](#).

## Helburuak

-Erakundeetan euskara sustatzeko modu berriak asmatu eta aztertzea.

-WikiTokin euskararen presentzia handitzea, bere egunerokoan eta funtzionamenduan eraginez.

-Harreman berriak bultzatzea euskararen inguruan.

-Euskararen presentzia handitzea kanpora begirako komunikazioan.

## Hautatzeko irizpideak

- Proposamenaren espiritu eraldatzailea: WikiTokiren egunerokoaz hausnarketa, elkarrizketa edo eraldaketa eragitea.

- Koherentzia, hizkuntzen ekologiararen planteamenduekin.

- Interesa izatea auto-antolaketa proiektuetan eta talde dinamiketan.

- Euskaraz jakitea.